

**5/2026 TXOSTENA, MAIATZAREN 18KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: OSASUN SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA
EZARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA.****I.- AURREKARIAK.**

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (uztailaren 30eko 36/2024 Dekretuaren bidez aldatua), 14. artikuluan, egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Osasun Sailari:

- a) Osasun-plangintza eta -antolamendua.
- b) Osasun publikoa: osasuna zaintzea, babestea eta sustatzea.
- c) Adikzioen prebentzioa.
- d) Farmazia-antolamendua.
- e) Arreta soziosanitarioaren koordinazioa.
- e bis) Berrikuntza eta ikerketa sanitarioa.
- f) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- g) Legeek eta erregelamenduek eman diezazkieten gainerako ahalmenak.

Urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren bidez, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen.

Era berean, Osasun Ituna eta Ekintza Plana adostu dira, eta, horien ondorioz, Sailean egiturazko aldaketak egin behar dira, beharrezko eraldaketa bultzatzeko.

Horretarako, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta, horren bidez, 14. artikuluko horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.



2026ko apirilaren 21ean, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_725/26_10), txosten honetarako interesgarriak diren dokumentu hauek daude:

- Dekretu-proiektuaren testua.- Dekretu-proiektuaren arau-eragina aztertzeko memoria.
- Dekretu-proiektua justifikatzeko memoria.
- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua eta proiektua alde aurretik onartzeko agindua.
- Osasun Saileko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren txostena.

Dekretu-proiektuak 16 artikulua, 2 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile 1 eta azken xedapen 1 ditu.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua) 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoaren arabera; izan ere, xedapen orokorra da, eta haren edukiak partzialki eragiten du kontratazio publikoaren eremuko alderdietan, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestalde, 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua a) letraren arabera, Batzorde Iraunkorrak izango du egitura organikoak eta funtzionalak arautzeko kontsulta-eginkizuna.

Txostenaren irismenari dagokionez, sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten proiektuaren alderdietara mugatzen da, Kontratazio

Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumena kontratazio publikoari dagozkion gaietarako buruzkoa baita soilik.

III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Jarraian, Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretu-proiektutik ondorioztatzen diren eta kontratazio publikoaren arloan eragina duten aldaketa nagusiak aipatzen dira. Zehazki, kontratazioan esku hartzen duten organoak zehazteari eta kontratuen kudeaketarekin lotutako eginkizunak barne-berresleitzeari eragiten diote, eta, bereziki, lurralde-ordezkaritzak kentzearen eta ebazteko eskumenak saileko organo zentraleri esleitzearen ondoriozko aldaketak dira, bai eta kontratazioaren arloan zeharkako eskumenak dituzten zuzendaritza-unitateen eginkizunak berrantolatzearen ondoriozkoak ere.

Proiektu horretatik ondorioztatzen da Osasun Sailaren mapa organikoaren funtsezko berrantolaketa, bi gaitan:

- Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzaren ordez Gobernantza eta Jasangarritasun Sanitarioko Sailburuordetza jartzea eta Osasun Sailburuordetza Osasun, Eraldaketa Digital eta Osasuneko Emaizten Sailburuordetza bihurtzea; eta
-
- "Lurralde Ordezkaritzen" ordez "lurralde-egoitzak" jartzea, eta lurraldeko langileen mendekotasun hierarkiko eta funtzionala ezartzea gaiaren arabera eskumena duten zuzendaritzekiko.

Berrantolaketa horrek eragina du kontratazioan; izan ere, erabakiak hartzeko eta espedienteak izapidetzeko zentroa kontratu-eskuduntza esplizituak dituzten lurralde-organok dituen eredu batetik (aurreko 319/2024 Dekretuan jaso) izaera materialeko eta kudeaketako goi-mailako organoetan edo zuzendaritzetan zentralizatuago dagoen eredu batera bideratzen du, hargatik eragotzi gabe lurralde-zerbitzuetan koka daitezkeen betearazpen- eta izapidetze-zeregin deskontzentratuak.

Halaber, eutsi egiten zaio gastua baimentzearen arloko eskumen-banaketari. Honela esleitzen da:



- Osasuneko sailburuari 500.000 eurotik gorako gastua baimentzea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak; eta
- Gobernantza eta Jasangarritasun Sanitarioko Sailburuordetzari Sailaren 500.000 eurora arteko gastuak baimentzea.

Aurreko 319/2024 Dekretuarekin alderatuta, ez da ikusten atalase kuantitatiboa aldatzen denik, baina bai berresleipen organiko bat: gastua baimentzea 500.000 eurora arte Administrazio eta Finantzaketa Sailburuordetzatik Gobernantza eta Jasangarritasuneko Sailburuordetzara igarotzen da, eta horrek ikuspegi berriaren barne-koherentzia indartzen du (gobernantza eta jasangarritasuna), eta sailburuordetza beraren pean zentralizatzen ditu gastu-baimena, gai jakin batzuetako kontratazio-organo espezifiko gisa duen eskumena eta kontratazio sanitarioaren jarraipen ekonomikoa.

Batzorde honen ustez, atalase horren jarraitutasunak egonkortasuna ematen dio sistemari, baina berresleipen organikoak eskatzen du, hala badagokio, gidalerroei, sinadura-fluxuei, ekonomia- eta aurrekontu-izapideei eta indarreko ordezkari buruzko gaiak berrikustea eta eguneratzea, eskumen-disfuntzioak saihesteko eta kontratazio-espeditetean organo erabakitzaila behar bezala identifikatzen dela bermatzeko.

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak sailaren ohiko kontratazio-organo gisa jarraitzen du, hargatik eragotzi gabe dekretuak berak beste organo batzuei berriazko kontratazio-organo gisa esleitzen dizkien eskumenak. Aldi berean, proiektuak prestazio sanitarioen arloko kontratazioaren espezialitatea indartzen du, Gobernantza eta Jasangarritasun Sanitarioko Sailburuordetzari esleitzen baitio kontratazio-organo espezifikoaren izaera prestazio sanitarioen eremuan, eta Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzari esleitzen baitio kontratazio horien izapidetzea.

Aurreko 319/2024 Dekretuak antzeko espezializazioa zuen, baina osasun-barrutien lurralde-diseinuari lotuta zegoen, eta lurralde-ordezkaritzen garrantzia zuen; txosten honen xede den proiektuak, ordea, sistema sailburuordetzan zentralizazio funtzional handiagoa eta izapidetze espezializatua (zuzendaritza eskuduna) lortzera bideratzen du, eta horrek homogeneotasuna, kontrola eta trazabilitatea erraztu ditzake.



Adierazi behar da 319/2024 Dekretuak kontratazio sanitarioarako eskumen garrantzitsuak zituzten lurralde-ordezkaritzak eratzen zituela, barnean hartuta kontratazio-organo espezifikoaren izaera bere osasun-barrutira bideratutako prestazio jakin batzuetarako, eta lurraldeko programa-kontratuak sinatzea.

Horri dagokionez, proiektuak ordezkaritza horien ordez «lurralde-egoitzak» ezartzen du, eta xedatzen du lurralde-jarduketak haien bidez egingo direla, langileak hierarkikoki eta funtzionalki gaiaren arabera eskumena duten zuzendaritzei atxikita, baina testuan ez da jasotzen kontratu-eskumenen esanbidezko esleipenik lurralde-arduradunei, ezta programa-kontratuen lurralde-sinaduraren pareko aipamenik ere.

Batzorde honen iritziz, aldaketa hori juridikoki posible da autoantolaketarako ahalaren barruan, baina zehaztugabetasun-arriskua areagotzen du trantsizio-fasean, baldin eta (a) lurralde-ordezkaritzei lotutako alde zuzeneko ordezkaritzak edo deskontzentrazioak bazeuden, (b) aurreko ereduaren arabera hasitako prozedurak edo espedienteak mantentzen badira, edo (c) operatibo mantentzen bada sinadura edo ebazpena behar duten jarduketa jakin batzuen lurralde-izapidetzea.

Beraz, gomendatzen da proiektuak berariaz argitzea lurralde-egituretan kokatuta zeuden espedienteen eskumen-zirkuitua, hutsuneak saihestuz eta erabaki-eskumena anbiguotasunik gabe dagokion organo zentralari esleitzen zaiola ziurtatuz, edo, lurralde-erabakitzeko ahalmenari eutsi nahi bazaio, eskuordetze edo deskontzentrazio bidez gauzatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Orobat, proiektuak kontratazio-mahaien sorrera edo osaera zuzenean arautzen ez badu ere, antolamendu-egituraren aldaketak (bereziki osasun-prestazioetan eta larrialdietan) laguntza-organoen sistemaren koherentzia egiaztatzea eskatzen du, bereziki saileko kontratazio-mahaia eta, hala badagokio, haren funtzio- edo lurralde-espezializazioak. Batzorde honek gomendatzen du mahaiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatze gerora egiten den edozein proiekturi nahitaezko txostena egin beharko diola, eta, beraz, egokia da dagokion azterketa aurreratzea proiektu hau onartu aurretik.

Era berean, adierazi behar da kontratazio-eskumenen berresleipen organikoak, bereziki kontratazio-organo arruntaz bestelako organo espezifikoak eratzen direnean (osasun-prestazioak, larrialdiko izapidetzea), eskatzen duela ziurtatzea espediente bakoitzean

eskumena duen kontratazio-organoari aholkularitza juridikoa emateko ardura duten zerbitzu juridikoek nahitaezko txosten juridikoa egingo dutela baldintza-agirietan eta kontratu-dokumentazioan.

Ildo horretan, Batzordearen ustez, funtsezkoa da proiektuak, barne-mailan, zehaztea zein den zerbitzu juridiko informatzailea Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak izapidetutako eta Gobernantza eta Jasangarritasun Sailburuordetzak ebatzitako espedienteetan, eta nola koordinatzen den Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzarekin, zeinak, gainera, zeharkako rol juridikoa eta sailaren koordinaziokoa baitu. Horrek guztiak garrantzi praktikoa du prozedura-akatsak prebenitzeko edo kontrol juridiko nahikorik gabeko egoera mugatzeko.

Proiektuak baditu antolamendu-aurreikuspenak, zuzendaritzei eskumena ematen dietenak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzeko eta, hala dagokionean, hizkuntza-irizpideak sartzeko laguntza-deialdietan eta administrazio-kontratazioan; era berean, sailburuordetzei eta zuzendaritzei hizkuntza-normalizaziorako eta jarraipenerako erantzukizunak esleitzen dizkie, indarrean dagoen gobernu-planarekin bat etorriz. Kontratuaren ikuspegitik, aurreikuspen horiek ez dute klausula zehatzik zuzenean arautzen, baina hizkuntza-betekizunak edo -baldintzak prozeduran sartzeko gaikuntza eta orientazioa ematen dute.

Batzorde honek gogorarazten du kontratazioko hizkuntza-irizpideen konfigurazioa justifikatuta egon behar dela kontratuaren objektuagatik, zerbitzuaren beharrianengatik eta kontratazio publikoaren printzipio orokorregatik, eta herritarrek Administrazioarekiko harremanetan hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea errespetatu behar duela, bai eta erakundeek hizkuntza ofizial bat beste baten kaltetan ez lehenesteko printzipioa ere, eta saihestu egin behar direla lehia-murrizketa bidegabeak edo diskriminazioak ekar ditzaketen baldintza neurrigabeak. Esparru horretan, Batzordeak gomendatzen du Osasun Sailak irizpide uniforme, proportzional eta arrazoituak ezar ditzala hizkuntza-eskakizunak sartzeko (adibidez, jendeari arreta bi hizkuntzetan emateko betebeharrak, zerbitzuak hala eskatzen duenean), aldi berean bermatzeko zerbitzu publikoaren kalitatea, herritarren hizkuntza-zuzenbidea eta lehia askea.

Halaber, dekretu-proiektuak indartu egiten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren integrazioa, zuzendaritza-erantzukizun gisa; izan ere, sailburuordetzei



esleitzen die berdintasun hori beren eremuan sustatzeko erantzukizuna, eta Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzari esleitzen dio koordinazio-eginkizuna berdintasun-planean eta autonomia-erkidegoko arau-esparruan aurreikusitako neurriak gauzatzeko. Ildo horretan, Batzorde honek gogorarazten du 1/2024 Jarraibidean ezarritako jarraibideak aplikatu behar direla (1/2024 Jarraibidea, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan genero-ikuspegia eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzkoa).

Aurrekoa ikusita, Aholku Batzordeak uste du proiektuak antolamendu-aldaketa garrantzitsuak sartzen dituela, eta, oro har, bat datozela kontratazio sanitarioaren zentralizazio funtzionalerako eta espezializaziorako estrategiarekin, kontratazio publikoaren izapidetze, fiskalizazio, kontrol eta publizitate egokia ahalbidetzen baitute, Autonomia Erkidegoaren oinarritzko legeriaren eta antolamendu-berezitasunen arabera.

Azaldutakoagatik guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, kontuan hartuta txosten honetan emandako gomendioak eta gogoetak.